

KLASIKOAK
ESKURA




Hogei mila legoako
bidaia itsaspetik
Jules Verne

ANAYA
HARITZA

Lehenengo zatia



Haitz mugikorra



Pertsona askoren oroimenean finkatuta gelditu zen 1866. urtea, urte horretan gertaera ulertezin bat jazo zen eta: hainbat itsasontzik «itzelezko gauza bat», gauza luze bat, aurkitu zuten itsasoan. Batzuetan, fosforeszentea zen, eta baleak baino mila aldiz handiagoa eta bizkorragoa. Mundu osoa zegoen txundituta agerpen miragarri hura zela eta.

Izan ere, 1866ko uztailaren 20an, *Governor Higginson* izeneko lurrunontziak, Indiako norabidean zihoala, Australiako kostatik bost miliako¹ distantzian aurkitu zuen masa mugikor hura. Baker kapitainak haitz ezezagunen bat zela pentsatu zuen hasieran, baina laster konturatu zen ez zela haitza: bi ur-zutabe jaurtitzen zituen, txistuka, aintzat hartzeko moduko altuerara. Beraz, ez zegoen zalantzarik, animalia ren bat zen, ordura arte ezezaguna zen uretako ugaztunen bat.

¹ *Itsas milia*: 1 852 metro balio dituen luzera-unitatea.

Txostenak eta txostenak egin ziren, beste behaketa batzuen berri emanez; txostenok zirrara eragin zuten jendea-
rengan, eta modan jarri zen munstro hartaz hitz egitea. 1867.
urteko lehenengo hilabeteetan, ez zen gai horren berririk
aipatu. Baina, apirilaren 13an, aldi hartan itsasoak zeharka-
tzen zituzten itsasontzi handienetako batek, *Scotia* itsason-
tziak, tresna ebakigarri edo zulagarri batekin egin zuen talka
ababorreko² aldetik.

—Ura sartzen ari da! Hondora goaz! —oihu egin zuten
zubiko marinelek.

Irekigunea bi metrokoa izan eta kalte handia hartu arren,
itsasontziak aurrera jarraitu zuen, eta kostara iritsi zen, zorio-
nez. Lehorrera eramanda, ingeniariak itsasontzia aztertzen hasi
ziren, eta ezin zuten ikusten ari zirena sinetsi. Flotazio-marra
baino bi metro beherago, triangelu isoszelearen itxura zuen
forma erregularreko zuloa ageri zen. Ebakidura zehatz-zehatza
zen, gainera.

Hori izan zen azken istripua, eta, gertaera horren ondorioz,
berriz piztu zen munstro hari eta munstroak eragiten zituen
hondamendiei buruzko interesa. Ondorioz, itsasontziak
«munstro» haren erruz galtzen zirela zabaldu zen.

Gauza horiek gertatu ziren garaian, nik amaitu berria nuen
Amerikako Estatu Batuetan zehar egindako zientzia-
esplorazioko bidaia bat. Parisko Historia Naturaleko Museoko
irakaslea nintzenez, Frantziako gobernuak espedizio horretara
bidali ninduen. Martxoaren bukaeran iritsi nintzen New Yor-
kera, eta Frantzian egon behar nuen berriz ere maiatzaren

² *Ababor*: ontziaren ezkeraldea, txopatik brankara begiratuz; hau da, atzealdetik au-
realdera.



The World
WEEKLY EDITION

The World
WEEKLY EDITION

hasieran. Itsasoan galdutako itsasontzien arazoa ahorik aho zebilen, eta neuk ere haren berri entzun nuen. Espedizioan bildutako mineral-, botanika- eta zoologia-laginak sailkatzen ari nintzela, *Scotia* itsasontziaren ezbeharra gertatu zen. Aditu gutxi batzuek uraren gaineko haitzaren teoria defendatzen zuten; hala ere, horren kontra agertzen ziren, alde batetik, indar izugarriko munstroa zelakoaren aldekoak, eta, beste alde batetik, potentzia handiko «itsaspekoa» zela uste zutenak.

Gobernuek baino ezin zezaketen halako makina suntsitailerik izan, eta, gerrako armen indarra handitzen ari garen aldi penagarri honetan, gerta zitekeen estaturen batek tresna izugarri harekin esperimentuak egitea, beste estatuak ezjakinean zeudela. New Yorkera iritsi nintzenean, hainbat pertsonak galdetu zidaten zer iritzi nuen arazo hartaz. Ahal izan nuen artean, ez nuen gaiari buruz hitzik askatu. Baina *New York Herald* egunkaria ekin eta ekin ibili zen, «Parisko Museoko Pierre Aronnax irakasle ohoragarriak» azalpen bat eman zezan, eta eman egin behar izan nuen.

Ikuspuntu guztietatik eztabaidatu nuen arazoa, politikaren zein zientziaren aldetik, eta hona hemen apirilaren 30ean argitaratu nuen artikulua bukaera:

«Ondorioz, egon daitezkeen aukerak banan-banan aztertu eta bestelako edozein hipotesi baztertu ondoren, ohiz kanpoko indarra duen animalia bat dagoela onartu beharra dago».

Ondorio hori ateratzeko ematen nituen arrazoiak honako honetan oinarritzen ziren: ozeanoetako sakonera handiak guztiz ezezagunak izatea. Izan ere, zundak oraindik ez dira haraino iritsi. Zer gertatzen da urruneko amildegi horietan? Nolako izakiak bizi dira? Bizi al daitezke hamabi edo hamabost miliako sakoneran? Nolako da animalia horien organismoa?

Nituen ezagutzak kontuan hartuta, prest nengoen narbal erraldoia zela onartzeko. Narbal arrunt edo itsas adarbakarrak hirurogei oineko³ tamaina izan dezake, batzuetan. Biderka ditzagun neurri horiek bostekin edo hamarrekin, eman diezaio-gun zetazeo horri bere tamainari dagokion indarra, eta *Scotia* zulatzeko gauza den animalia izango dugu.

Narbalak bolizko ezpataren antzeko hortza du, altzairua bezain gogorra. Horrelako hortzak baleen gorputzean iltzatuta agertu dira, narbalek eraso egin ondoren; halako beste hortz batzuek alde zeharkatu dituzte itsasontziak, eta ozta-ozta atera dituzte handik.

Eztabaida asko sortu ziren nire artikulua inguruan. Horrek entzute handia eman zidan, eta hainbat pertsona izan nituen alde. Proposatzen nuen irtenbideak, beste alde batetik, tokia uzten zien fantasiari eta bakoitzaren irudimenari. Era horretako izaki erraldoiak itsasoan baino ezin daitezke agertu eta garatu; lehorreko animaliak, elefanteak zein errinozeroak, txiki-txiki ageri dira haien ondoan.

Berehala hasi ziren narbal hura harrapatzeko prestakizunak New Yorken. Ondo hornitutako fragata prestatu zuten, lehenbailehen itsasoratzeko; *Abraham Lincoln* zuen izena, eta Farragut komandantea zen nagusia.

Berebiziko zirrara sortu zen gerra-ontzi bat munstroaren bila joango zela zabaldu zenean. Farragut komandantea prest zegoen itsasoratzeko. Ez zen tripulazioko inor falta. Galdarak piztea, behar zen presioa lortzea eta amarrak askatzea baino ez zegoen.

Fragata itsasoratu baino lehen, honako hau zioen gutuna jaso nuen:

³ *Oin*: luzera-neurria; 30,48 cm-ren baliokidea da Ingalaterran.

Aronnax jauna. Parisko Museoko irakaslea.

Jaun agurgarri hori: Abraham Lincoln fragataren espedizioan parte hartu nahi izanez gero, Batasuneko gobernuak begi onez ikusiko luke zu Frantziaren ordezkaria izatea zeregin horretan. Farragut komandanteak gela bat du zuretzat.

Begirunez

*J. B. HOBSON
Itsas Armadako Ministroa.*